

Dislexia: irakasleriari zuzendutako informazioa

Irakasle orok izango du bere karrera profesionalean zehar dislexia duen ikasle bat, gutxienez, bere ikasgelan.

Hasiera-hasieratik irakurketarekin, idazketarekin, ortografiarekin eta, ziurrenik, aritmetikarekin zailtasunak dituzten ikasleak dira. Hala ere, sortzaileak, trebeak, irudimentsuak edota jarduera praktikorako iaioak izan daitezke. Ezinbestekoa da ahal bezain laster neska- mutil horiek identifikatzea, babestea eta zaintzea, arrakasta lortzen laguntze aldera.

Dislexiaren adierazle nagusiak

- Zenbait arlotan oso azkarra izan daiteke; beste batzuetan, aldiz, blokeatu egin daiteke.
- Letra-soinu antzemate, hiztegiaren ezaguera bisual eta ordenamendu sekuentzial urria.
- Epe motzeko lan-memoria eskasa – argibideak jarraitzeko zailtasunak, gauzak ahazteko joera-.
- Informazioaren prozesamendu motela– idatzizko edo ahozko lengoaia.
- Arreta tarte mugatua izan dezake.

Irakurketa eta idazketa

- Idatzizko lanetan maila baxua, ahozko mintzairan dituen gaitasunekin alderatuta.
- Esaldiaren egitura oker edo nahasia.
- Plangintzarako zailtasunak: ideien/gertaeren sekuentzia “nahasia”, denborekin nahasketa.
- Idatzizko lanen aurkezpen osatugabe, zikin edo nahasia.
- Letren osaketa eta lerroarte eskasa, arkatza eusteko eta kontrolatzeko zailtasunak.
- Zenbaki eta letrak alderantzizkatzeko joera (b/d; p/q/g; 2/5; 6/9).
- Puntuazioaren erabilera okerra edo mugatua.
- Ortografiari dagokionez, sendotasun eza – idazlan batean hainbat modutara letreiatzen du hitz bera.

- Hitz arruntak nola idazten diren gogoratzeko zailtasunak – hau/honek, hura/hark.
- Irakurtzerakoan edo letreiatzerakoan letren ordena nahastea – opsitale/ospitale-, hitzen inbertsioa – azpi/zapi, ezin/zein. zuhaitz/zuhaizti.
- Adina kontuan izanda, letreiatze arraroa edo desegokia.
- Hitzen edota silaben omisioa; zenbait hitz esalditik kanpo uzten ditu edo esaldietan hitzak gehitzen ditu.
- Idatzizko ariketak ekiditen ditu edo gustoko ez dituela dirudi.
- Hitzak irakurtzerakoan letrak-soinuak nahasten ditu eta gorroto du ozen irakurtzea.
- Hitzak silabatan banatzeko zailtasunak.
- Irakurketa motela, dudatsua, zehaztugabea eta espresiorik gabea.
- Hitz ezagunak antzemateko zailtasunak – nahiz eta aurrez testu edo orrialde berean irakurri.
- Informazioa kopiatzeko arazoak.
- Irakurtzen ari dela haria galtzeko joera; ezkerretik eskuinera irakurtzeko arazoak.
- Gai garrantzitsuenak ulertzeko edota hautatzeko zailtasunak.
- Testuinguruari edota pista piktorikoei errepara diezaieke hobeto ulertzeko; gerta liteke horiek alde batera uztea ere.

Aritmetika eta denbora

- Ordena sekuntzialarekin, biderkatzeko taularekin, asteko egunekin, hilabeteekin zailtasunak.
- Sinbolo matematikoekin nahasmena, baitaa + edo x ikurrekin ere.
- Balore posizionalaren esanahia ulertzeko zailtasunak.
- Lengoia matematika irakurtzeko/ulertzeko zailtasunak.
- Lengoiarekin eta noranzko posizionalekin nahasmena: lehenago/beranduago, gora/behera, x/y koordinatu ardatzak.
- Orduarekin, denboraren kudeaketarekin edota denborarekin loturiko kontzeptuekin arazoak –atzo, bihar.
- Zailtasunak sekuentziazio eta norabide prozedurekin; baita idatzizko lana kopiatu eta diseinatzearekin ere.

Portaera

- Orden eza eta nahasmena ageri dira eguneroko zereginetan.
- Ihesbide-taktikak erabiltzen ditu – bere materialen artean bila aritu, arkatza zorroztu.
- Lan egiterako orduan sendotasun falta: egun “onak” eta “txarrak” ditu.
- Urduri, nekatuta edota adi ez dagoela dirudi, baita arreta erraz galdu dezakeela ere.
- Esfortzu ikaragarria eta etekin gutxi; arrakasta ezak eragindako frustrazioa.
- Ikasgelan “pailazo” rola izan dezake, laguntza gutxi eskaini dezake edo disruptiboa izan daiteke.

Irakasleriak nola lagundu dezake?

Dislexia duten ikasleek euskarri osagarri eta bideratua behar badute ere, irakasleek aukera ugari dituzte ikasgela barruan laguntza eskaintzeko. Egunerokoan aldaketa txikiak txertatzeak eragin nabarmena izan dezake ikasketa eraginkorrean.

Gogora ezazu dislexia duen pertsona bakoitza bakarra dela eta zailtasuna eta indar propioak dituela

Egokitzapena eta elkartzea

- Argi ikus eta entzun zaitzakeela ziurtatu, baita arbela eta argibide bisualak ere.
- Erraz ikus dezakezun eta berehalako laguntza eskaini diezaiokezun leku batean eseri dadila.
- Jardueraren arabera taldekatu ikasleak, ez beraien alfabetatze mailaren arabera, gaitasun alfabetikoen berariazko irakaskuntzan salbu.

Informazioa, jarraibideak, antolakuntza

- Informazioa behar den moduan prozesatzeko eta erantzuteko denbora eskaini.
- Argibide labur eta sinpleak eman, pausoz pauso adierazi.
- Informazioa askotan eta modu ugaritan aurkeztu eta azaldu (marrazkiak, fluxu diagramak, eskemak).
- Eska iezaiezu dislexia duten ikasleei jarraibideak errepika ditzaten, ulertu dutela egiaztatze aldera.
- Jarraibideak eman eta gogorarazi zer egin behar duen, non aurkitu ditzakeen gauzak, hitz erabilgarriak.

- Materialei etiketak jarri eta gorde beti leku berean.
- Eman ohar-blok bat idazmahairako, hitz-bankuak, jarraibide eta helburu pertsonalak.
- Laguntza praktikoa eskaini: kalkulagailuak, biderkatzeko taulak zein zenbaki taulak. Azaldu nola erabiltzen diren.

Memoria

- Zentzumen-aniztun teknikak erabili, informazioa behar bezala barneratu duela ziurtatze aldera.
- Estrategiak irakatsi letren soinuak eta ortografía arauak ikasten laguntzeko.
- Dislexia duten pertsona askok zinstezia bidez ikasten dute; hau da, eginez ikasten dute. Gidatutako mugimenduetan nahasi; erabili erritmoa eta jarduera bisualak memoria estimulatzen eta oroitzapenak berreskuratzeko.

Idazlana

- Sustatu idazketaren alternatibak – marraztea, erantzunak diktatzea/grabatzea.
- Idatzizkoak ez diren erantzunak –marrazketa, antzezlanak, kantua, diktatutako erantzunak-baliatu bere ikaskuntza frogatzeko.
- Mugatu idatzizko eskaerak eta behar adina denbora eman idazlanak egiteko.
- Mekanografiatzen ikas dezala bermatu – ordenagailua erabiltzera bultzatu.
- Eman planifikazio formatuak/ idazkera markoak / idazlan luzeetarako “ipuin egiturak”.
- Irakatsi mapa mentalak, aramu- mapa kontzeptualak, eskemak, fluxu-diagramak, informazio eta komunikazio teknologiak.

Zuzentzerako ordutan

- Zuzenketak markatzeko kodigoa sortu ikaslearekin batera. Marraztea edo akatsak azpimarratzeko bolígrafo gorria erabiltzea ez da prozedurarik egokiena – leunki azpimarratu edo erabil ezazu puntu bat.
- Elkarrekin zuzendu lana, egindako akatsak azaltzeko.
- Zehaztu zer zuzendu beharko duen –edukia, ortografía, gaitasun teknikoak edo aurkezpen teknikak- eta hori soilik markatu.
- Azpimarratutako akats kopurua murriztu – mota bakoitzeko bat, esaterako. Etorkezunean nola ekidin ditzakeen iradoki.
- Goraipamen zuzenak egin – goraipatzen ari zarela adierazi- esfortzuari zein lorpenari erreferentzia egin.
- Gainontzeko ikaskideen aurrean iruzkin negatiboak egitea saihestu; feedback indibiduala lehenetsi.

Irakurketa

- Eman tindatuta dauden iragazkiak/estalkiak edo irakurketa markatzaileak.
- Erabili zuria ez den orria eta horri buruzko lehentasunen inguruan galdetu.
- Irakurketa baliabideak eta irakurketa gaitasuna parekatu, bere adinerako egokiak direla ziurtatu.
- Formatu digitalean edo audio formatuan dauden liburuen erabilera sustatu, testura sarbidea izan dezan.
- Irakatsi gako hitzak, azpimarratzea, koloreak eta irudiak zuzen erabiltzen informazioa gogoratzeko.
- Testuko punturik garrantzitsuenak azpimarratu, errazago ulertu, iragarri eta gogora dezan.
- Gai berrietarako beharrezkoa den hiztegia irakatsi – txartelak, hitzen fitzak, posterrak erabili.
- Bakarkako irakurketan –aurrez prestatu/antolatu gabe- eroso sentitzen dela ziurtatu.
- Binakako/partekatutako irakurketa jarduerak txertatu, soltura hobetzeko, ulermena errazteko eta konfiantza handitzeko asmoz.

Arbeleko lana

- Arbelean irakurri beharreko edo bertatik kopiatu beharreko lan kopurua murriztu. Kopiak edo oharra/adibideak eman.
- Koloretako errotuladoreak erabili arbel zurian.
- Kolore beixa edo urdina ezarri arbelaren hondo gisa.
- Taula zuriak saihestu, distira eta erreflexuak ezabatze aldera.
- Hainbat kolore baliatu itemak idazteko.
- Lerro/gai bakoitzaren hasiera eta amaiera modu argian izendatu edo markatu.